

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernua akordio batera iritsi da erakunde sindikalekin funts gehigarriak aplikatzearen inguruan

Funtzio Publikoak negoziaturiko akordioa Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako langileen Negoziateko Mahai Orokorraren egoitzan gaur lortutako emaitza da

Astelehena, 2018.eko urriak 1

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile funtzionarioen eta estatutupekoen Negoziateko Mahai Orokorra gaur bildu da Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako Maria Jose Beaumont kontseilaria buru duela, eta akordio historikoa lortu da langile publikoen sindikatuen ordezkarekin, LAB, CCOO eta UGTk babestuta eta ELA sindikatuaren abstentzioarekin.

Akordioan, langileen aldarrikapenak, batzuek historikoak, jaso dira, eta kontseilariak eta Funtzio Publikoko Amaia Goñi zuzendari nagusiak aipatu erakunde sindikalekin irailaren 11n eta 20an egindako lan-bileren emaitza izan da, horrela erabaki baitzuen uztailearen 3an bildutako Mahai Orokorrak, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailearen 3ko 6/2018 Legeak Nafarroari soldata-masa %0,30 gehitzeko aukera ematen ziola behin jakinda. Eta hori garai hartako Ogasun eta Funtzio Publikoko ministroak estatu-mailako erakunde sindikalekin, enplegu publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko, sinaturiko II. Akordioaren ondorioz; akordio horretan, ondorengo igoerak onartu ziren: %0,20 2018an, %0,25 2019an eta -% 0,30 2020an. Era horretan, Nafarroarako, ekitaldi bakoitzean, %0,30eko portzentajea lortu zen, 2017ko ekitaldia defizitaren helburua beteaz amaitzeagatik.

Gogoratu behar da Nafarroako 2018ko Aurrekontu Orokorren inguruko abenduaren 28ko 20/2017 Foru Legeko 6.1 artikuluan ondorengo ezarri zela: "Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak igoko dira, Estatuko legediak sektore publikoko langileentzat 2018rako ezarritako gehieneko globala igo ere, ondorioak 2018ko urtarrilaren 1ean hasita. Gainera, hala baldin badagokio, ordainsariak egokituko dira, lanpostu bakoitzari esleitutako ordainsariak bat etorri behar baitu lanpostuaren beraren zailtasun tekniko, arduraldi, erantzukizun, arriskugarritasun edo nekagarritasun baldintza bereziki".

Premisa horiek aintzat hartuta, Nafarroako Administrazioak erabaki du funts gehigarri horietarako 3.404.066 € jartzea 2018an eta, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeek 2019 eta 2020 ekitaldietarako horrela baimentzen badute, 3.660.814 € 2019an eta 3.822.314 € 2020an.

Akordioaren sinadura urriaren 4an, ostegunean

Behin funts gehigarrien helmuga negoziatuta, datorren ostegunean, urriaren 4an, goizeko 10:00etan, María José Beaumont kontseilariak akordioa sinatuko du erakunde sindikaletako ordezkariekin, eta, ondoren, komunikabideen aurrean agertuko dira Funtzio Publikoko kontseilaria zein zuzendari nagusia nahiz sindikatuetakako ordezkariak, akordioaren baldintzak argi eta garbi adierazi eta balorazioa egiteko.